



Waleska Sigüenza Tamayo

Waleska Sigüenza Tamayo Ph. D. UPV/EHUko irakasle atxikia da, Ekonomia Aplikatuaren arloan. Cambridgeko Unibertsitatean "Internacional Diploma in Business" arloko graduondokoa eta UPV/EHUko "zergen ordainketan aditua". Ekonomia eta Enpresa Zientzietan doktorea (Ogasun eta Administrazio Publikoko Ministerioak deitutako "José Barea Tejeiro" Ekonomia Publikoko Saria).

Gaur egun irakaslea da UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko (Araban) Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduan, zehazki "Zergen ordainketako unibertsitate espezializazioa" graduondokoa eta "Digital Management & ERP: enpresaren kudeaketa 4.0" master propioan. Era berean, UPV/EHUk antolatutako ikastaroetan eta mintegietan parte hartu du, baita Negozioen eta Teknologien Goi-mailako Eskolak (ESDEN) antolatutako MBA Executive masterrean ere. Gradu amaierako lanen zuzendaria da, praktikaldien tutorea eta "Enpresaren zerga araubidea" irakasgaiaren koordinatzailea.

Unibertsitate kudeaketako karguak betetzen ditu, hala nola Ekonomia Aplikatua II saileko idazkari akademikoa da, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Araban) sail bererako koordinatzailea da eta UPV/EHUko "Zergen ordainketako unibertsitate espezializazioa" graduondoko zuzendaria da.

Ekonomia aplikatuaren arloko ikerketa proiektuetan parte hartzen du, baita hezkuntza berrikuntzarako proiektuetan ere. Osasunaren ekonomia da haren ikerketa ildo nagusia; arlo horretan kokatzen dira haren ikerketa lan gehienak. ORCID <http://orcid.org/0000-0003-3448-4560>

Sektore pribatuan, berriz, erantzukizun postuak bete ditu enpresaren finantza eta administrazio sailean.